

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2014ko urriaren 23an aurkeztuko du

**Gure garaiko artea.**

**Guggenheim Bildumen maisulanak**

## *Gure garaiko artea. Guggenheim Bildumen maisulanak*

- **Komisarioak:** Petra Joos, Lucía Agirre, Álvaro Rodríguez Fominaya, Nancy Spector, Tracey R. Bashkoff, Lauren Hinkson
- **Datak:** 2014ko irailaren 23a–2015eko urtarrilaren 25a (hirugarren solairua)  
2014ko urriaren 23a–2015eko maiatzaren 3a (lehen eta bigarren solairuak)

Solomon R. Guggenheim Foundation eta Guggenheim Bilbao Museoaren arteko hogei urteko lankidetzaz ospatzeko asmoz antolatu da erakusketa hau. 1997ko urrian Museoa inauguratu zuen eta erakusketa-eremu osoa betetzen zuen erakusketa gogora ekarriz, [Gure garaiko artea. Guggenheim Bildumen maisulanak](#) erakusketak museoaren funts artistikoen bilakaera agerian uzten du, museoaren sortu zen unetik gaur egunera artekoa. Era berean, sareko instituzioen eta haien funtsen osagarritasunaren arteko sinergiak nabarmentzen ditu, funts bakoitzaren nortasun berezia gordez.

Erakusketa garrantzitsu honek bi irekiera une izango ditu: batetik, irailaren 23an, erakusketaren lehen atala zabalduko da jendaurrean eta hirugarren solairuan kokatuko da; bestetik, aste batzuk geroago, urriaren 23an, lehen eta bigarren solairuak inauguratuko dira.

### **Hirugarren solairua: Bildumen jatorriak**

Erakusketak nolabaiteko kronologiari jarraitzen dio. Ibilbideak, hortaz, Solomon R. Guggenheim Museum-en funtsen aukeraketa bikaina du abiapuntu. Funts horiek XX. mendearen hastapenetan sortutakoak dira, ideal utopikoek eta sinesmen politikoek abangoardia artistikoak eragin zituzten garaikoak; hots, mendebaldeko artearen herentzia figuratibo handia zalantzan jartzen dute eta estetikasun hutsetik haratagoko ideal berriak defendatzen dituzte. Espresionismo Abstraktu estatubatuarrari eta haren Europako mugimenduari, Informalismoari, lotutako pieza garrantzitsuekin jarraitzen du ibilbideak. Amaitzeko, berriz, Jorge Oteizari eta Eduardo Chillidari buruzko gune paregabeak ikus daitezke.

### **305. eta 306. aretoak**

XX. mendearen hasiera emankortasun handiko garaia izan zen Europa osoan esperimentazio artistikoari dagokionez. Frantzia, eta zehazkiago, Parisen, Albert Gleizesen gisako artistek espazioaren ikuspegi tradizionala eta adierazpen ilusionista errefusatzen zuen hiztegi kubista garatu zuten, *Mediku militar baten erretratua (Portrait d'un médecin militaire, 1914–15)* lanak adierazten duen moduan. Alemanian eta Austrian, egile ugari forma pikturikoaren ezaugarriak indartu zituzten, sentimenduen adierazpena eta egoera espiritualak bilatuz. Horren adibidea da Franz Marcen *Zezena (Der Stier, 1911)* artelana. Espresionistek, bestetik, emozioz betetako irudiak eta abstrakzioa baliatu zituzten garaiko egia psikologikoak adierazteko.

Aipatu abstrakzioa agerian geratzen da Vasili Kandinski eta László Moholy-Nagy artisten obretan. *Bat-batekotasuna 28 (bigarren bertsioa)* [*Improvisation 28 (zweite Fassung)*], 1912 eta *AXL II* (1927) margolanen bidez, forma hutsaren eta kolorearen oinarriei ezaugarri espiritualak eta utopikoak ezarri zizkieten. Surrealismoak inkontzientearen eta bizitutako errealitatearen arteko harremana arakatu zuen, horretarako, estrategia automatistak baliatuz eta ikuspegi mentalak forma biomorfo bilakatuz, esaterako, Joan Miróren *Paisaia (Erbia)* [*Paysage (Le Lièvre)*, 1927ko udazkena] artelanean ikus daitekeen moduan.

Garaiko zenbait mugimenduren ezaugarri den zatikatze estetikoak —Kubismoaren plano apurtuak, pintura espresionistaren figura itxuragabetuak eta ikonografia surrealistaren justaposizio hibridoak— errealitatearen zatikatze sozial eta psikikoaren analogia bisual gisa uler daitezke.

### **307. aretoa**

Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, artista ugari AEBetara ihes egin zuten, New Yorkera gehienek, eta herrialdea Europako ondarearen oinordeko eta mendebaldearen gune artistiko berri bilakatu zuten.

Espresionismo Abstraktua Ipar Ameriketako lehen mugimendu artistiko handia izan zen. Mugimendu honen barruan kokatzen da, halaber, ekintza pintura edo *action painting*. Termino hori erabiltzen da, hain zuzen ere, keinu eta adierazpeneko pintura eredu bat deskribatzeko, eta Espresionismoaren aurreko formei eta idazkera automatikoaren teknika surrealistei dagozkien heroismo subjektiboarekin lotzen da. Jackson Pollocken *Titulurik gabea (Zilar berdea)* [*Untitled (Green Silver)*, ca. 1949] artelana da horren adibide. Espresionismo Abstraktuaren mugimenduko kide zenbaitek, berriz, koloretako plano zabalak erabili zituzten egoera espiritualak adierazteko eta lirismo sakoneko artelan meditatiboak sortzeko. Koloretako eremuetako margolariak ziren horiek, Mark Rothko esaterako; haren *Titulurik gabea*, 1952–53 artelana dago ikusgai.

Horrekin batera, joera berri bat sortu zen Europan, filosofia existentzialisten eta ekialdeko pentsamenduaren babespean: Informalismoa edo Art Informel (frantseseko *informe* hitzetik dator, hau da, “formarik gabea”). Joera honen ezaugarri nagusiak gauzatzearen bat-batekotasuna, keinuaren bertuteak alde batera uztea, eta artelanaren ezaugarri fisikoen garrantzia dira, Jean Dubuffeten *Irudipenen muinoa (La butte aux visions)*, 1952ko abuztuak 23, edo Asger Jornen *Ballet berdea (Il balletto verde)*, 1960 artelanez agerian utzi bezala.

### **304. aretoa**

Gerraosteko garai honetan hasi zen Eduardo Chillida gaztea nabarmentzen. Denbora labur batez egon zen Parisen 1947an, eta nazioartean artista aitortua zen jada 1958an, Veneziako Bienalean Eskulturaren Nazioarteko Sari Nagusia jaso ostean. Urte hartan bertan, museoa New Yorkeko bosgarren etorbidean inauguratu aurretik, Chillidaren artelanak Guggenheim Bildumaren parte bilakatu ziren, *Barnetik (Desde dentro)*, 1953ko martxoa artelana eskuratu eta gero. Chillidak arkitektura ikasketak egin zituen Madrilen eta bertan ikasitakoa agerikoa da

eskulturen azpian diharduten egituretan, materialen gainean jarritako arretan eta bere artelanen espazio-harremanen plangintza zainduetan. Chillidak, berez, arkitekturekin lotuta ulertzen zuen eskultura. Gai kontzeptualen eta metafisikoen inguruan zerabilen bilaketa islatzeko, hasiera batean harria eta igeltsua erabili zituen; burdina, espazioaren metamorfosia eta espazioaren bolumenaren definizio abstraktua arakatzeko; eta zura eta altzairua, industriaren, arkitekturaren eta nekazaritzaren euskal tradizioak adierazteko. Material horiek guztiak ikusgai daude bere artelanei eskainitako gune monografikoan.

### **301. aretoa**

Jorge Oteizari eskainitako gune monografikoa ere badu erakusketa honek. Artistaren lanak, definitzen zaila, eskultura-objektutik harago jotzen du, masaren eta espazioaren inguruko prozesu esperimentera gisa aurkezten baita. Sail edo familia esperimentera multzokatzen du bere obra Oteizak, esaterako, kutxa metafisikoei buruzkoak edo esferaren desokupazioari buruzkoak. Horien zenbait adibide daude: *Esferaren desokupazioaren entsegua* (*Ensayo de desocupación de la esfera*, 1958) edo *Bi triedroen elkartzeak sortutako kutxa metafisikoa*. *Leonardori omenaldia* (*Caja Metafísica por conjunción de dos triedros. Homenaje a Leonardo*, 1958). Bere azken garaian Minimalismorantz jo zuela esan badaiteke ere, Oteizaren eskultura mende hasierako abangoardia artistikoen barruan kokatzen da, Neoplastizismoaren eta Konstruktibismoaren barruan bereziki. Edonola ere, Bigarren Mundu Gerraren osteko beste zenbait egilek arte abstraktu, espiritual eta humanistarekiko erakutsitako sentiberatasun bereziarekin ere bat egiten du.

### **302. aretoa**

Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako New Yorkeko giro artistikoaren baitan, eskulturak pintura baztertu zuen, kontzeptua materialari gailendu zitzaion eta ideia artelanaren ezaugarri sentsorialaren gainetik jarri zen. Artelan minimalisten kasuan, esaterako, Robert Morrisen *Titulurik gabea* (*altzairuzko 16 kaxa*) [*Untitled (16 steel boxes)*, 1967] artelanean, artistek alde batera uzten zituzten ilusioa eta adierazpena, bisitariaren esperientziari —objektu artistiko bat galeria baten aurkitzea eta behatzea— erabateko garrantzia emanaz. Beste zenbait artistek, Bruce Naumanek esaterako, jardun artistikoa eta artearen behaketa denboran oinarritutako esperientzia gisa ulertu zituzten, eta, sarritan, baita esperientzia parte-hartzaile moduan ere, *Erdialderako argizatutako lana* (*Lighted Center Piece*, 1967–68) artelanak erakusten duen bezala. Lawrence Weinerren gisako beste zenbait egile kontzeptualek, aldiz, materiala guztiz ezabatu zuten eta hizkuntza bitarteko eskultoriko gisa erabili zuten, *TAKET SORTA* (*A STAKE SET*, 1969) artelanean bezalaxe.

### **303. aretoa**

Areto honetako artista europarrak, Jannis Kounellis eta Richard Long, hain zuzen ere, Povera Artearen eta Land Arten adierazle nagusiak dira, eta haien lanek garaiko munduaren indar ideologiko, ekonomiko, sozial eta politikoen ikuspegi osoa islatzen dute.

Jannis Kounellis aburuz, Bigarren Mundu Gerraren osteko gizarte europarrak ez zuen garaiko zibilizazioaren zatiketa islatzen zuen forma estetikorik. *Titulurik gabea* (1988) artelanean

elementu organikoak eta industrialak uztartzen dira, naturaren eta kulturaren arteko konfrontazio poetiko baten modura. Richard Longek, bestalde, naturaren barneko esperientziak buztinezko edo harrizko eskultura eta marrazkietan islatzen ditu, eta horien bidez, ikusleak egilearen bizipenak esperimentatzeko aukera du; kasu honetan, erakusketa aretoan kokatutako *Bilboko zirkulua* (*Bilbao Circle*, 2000) artelanarekin.

## **Bigarren solairua: Pop-etik XX. mende amaierara**

Kronologiari begiratuta, Guggenheim Bilbao Bildumaren abiapuntua XX. mendearen bigarren erdia da. Erakusketaren bigarren solairuan, beraz, Guggenheim Bilbao Bildumari dagozkion artelan aukeraketa zabala, artelan multzoak eta sailak dira nagusi.

### **205. aretoa**

Hirurogeiko hamarkada XX. mendeko garai probokatzailenetakoa izan zen, kulturari, politikari eta filosofiari dagokionez. Bigarren Mundu Gerraren ostean eta Gerra Hotzean, berrogeita hamarreko hamarkadan jasandako hazkunde ekonomiko izugarriak kontsumo kultura berri bat eragin zuen. Kontsumismo berri horri jarraitu zioten New Yorkeko edo Los Angelesko giro artistikoan sortutako zenbait artistek 1960ko hamarkadaren lehen urteetan.

Pop Artea, sarritan, fenomeno estatubatuartzat jo da funtsean; hala ere, artista eta teorialari britainiarrak izan ziren Pop-aren oinarritzko printzipioen inguruan eztabaidatzen eta azalpenak ematen lehenak, berrogeita hamarreko hamarkada amaieran. Pop Artean, epikotasunak egunerokotasuna ordeztzen du, eta seriean fabrikatutako produktuak objektu berdingabeekin parekatzen dira; halaber, arte jasoaren eta kultura herrikoiaeren arteko arraila desagertzen da. James Rosenquisten *Flamenko kapsula* (*Flamingo Capsule*, 1970), Andy Warholen *Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretan* (*One Hundred and Fifty Multicolored Marylins*, 1979) edo Roy Lichtensteinen *In* (1962) artelanetan, esaterako, iragarki, iragarki panel, zinema eta telebista, komiki-banda edo produktuen bilgarrietatik hartutako ikonografia erabiltzen da, garai hura goratu, eta aldi berean, iruzkin kritikoa egiteko xedearekin.

### **206. aretoa**

Robert Rauschenberg eta Cy Twombly artistak XX. mendearen bigarren erdiko giro artistikoan eragin handiena izan zuten bi egile nabarmen izan ziren. Ipar Karolinako Black Mountain College-n trebatu ziren biak, eta 1950eko hamarkada erdialdean haien berezko hizkuntza bisuala sortu zuten jada.

Espressionismo Abstraktuaren berezko keinu heroikoekin kontrastatuz, Cy Twomblyren marra kaligrafikoak, sarritan zuriz margotutako gainazalen gainean beltzez egindakoak, grafitiekin parekatu dira. Itxuraz abstraktua dirudien hizkuntza horrek kultur eduki sakona ere izan dezake, izan ere, Twomblyk literatura klasikoaren eta mitologiaren erreferentzia zuzenak txertatzen ditu bere artelanean. *Komodori buruzko bederatzi gogoeta* (*Nine Discourses on Commodus*, 1963) obra sakabanatu ezineko zenbait mihisetan egindako lehena izan zen, eta Aurelio Komodo

enperadorearen gobernu penagarriari buruzkoa da (K.o. 177 eta 192 urte bitartean egon zen agintean). Irudi abstraktuak erabiliz, kontakizun indartsua eta zirrargarria iradokitzen du.

Robert Rauschenberg, bestalde, Pop Artearen aitzindaritzat jo daiteke, bere artelanetan kalean aurkitutako eguneroko objektuak eta aldizkari zein egunkarietatik hartutako irudiak jasotzen ditu eta. Edonola ere, Rauschenbergen artelanek artistaren berezko keinuak islatzen dituzte, eta ezaugarri horrek Pop Artearen estetika hotz eta inpersoneletik desberdintzen du. Erakusketan Rauschenbergen artelan handiena eta ikonikoena dago ikusgai: *Gabarra (Barge, 1962–63)*. 24 ordutan burutu zuen artistak eta hirurogeiko hamarkadan Rauschenbergekin hasitako margolan serigrafiatu onenetako bat da.

### **207. aretoa**

Georg Baselitz 1960ko hamarkadaren amaieran egin zen ezagun, irudiak buruz behera ziztuzten mihiseei esker. Irudiak, eta ez mihisea, itzulikatzean, konposizioaren ohiko arauak azpikoz gora jarri zituen, irudiaren eginkizuna beste modu batera aztertzeko eta lehenago egindako lanetatik, hots, haien narrazio kutsu handitik, aldentzeko. 1970ko hamarkadan eskuekin eta, geroago, oinekin margotzeko ekin zion; horrela azpimarratu nahi zuen pintatutako irudia gorputzaren mugimenduen emaitza ere bazela, ez buruaren, arimaren, gogoeta baten ondorioa bakarrik.

*Lenin andrea eta urretxindorra (Mrs. Lenin and the Nightingale, 2008)* lana hamasei mihiseko saila da —erakusketan bederatzi daude ikusgai— eta konposizio-egitura bera du oinarri: bi gizon buruz behera, elkarren ondoan eserita, zakilak agerian eta eskuak izter gainean. Irudi horren iturria Otto Dix-en *Artistaren gurasoak II* (1924) erretratu ezaguna da; beste lan askotan bezala, Baselitz-ek artearen historiako aurreko lan bat hartu eta bere modura berrinterpretatu zuen. Lan honetan, jatorrizko irudien ordez, bi diktadore margotu zituen: Vladimir Lenin eta Josif Stalin. Saileko pintura bakoitzak titulua du. Izenburu horiek hitz-jokoak edo esaldi misterioitsuak dira, eta ez dituzte zuzenean erretratututako diktadoreak aipatzen; aitzitik, iturri dituzte gaur egungo artisten lanen inguruko hausnarketak edo artistekin Baselitzek izandako topaldiak.

### **209. aretoa**

Joseph Beuys eta Anselm Kiefer artisten artelanak biltzen ditu areto honek. Belaunaldi desberdinetako artistak izan arren, zenbait alderdi formal erabiltzen dituzte biek, hala nola, eskala monumentalak, ezohiko materialen erabilera eta ikuspegi kosmogoniko berezia.

*Tximista oreina argituz (Blitzschlag mit Lichtschein auf Hirsch, 1958–85)* Beuysen instalazio nabarmenetako bat da. Artista alemaniarrek lurrarekiko, animaliekiko eta heriotzarekiko obsesioa adierazten du bertan. Hil aurreko urtean amaitu zuen instalazio honek, artistak bere ibilbidean barrena erabilitako zenbait teoria eta mitologia jasotzen ditu; hala ere, obraren benetako adiera “eskultura sozialaz” egiten duen definizioan aurki daiteke, zeinaren bidez gizartea gaztetu edo argitu nahi zuen bere pentsamendu sortzailearen energiarekin.

Anselm Kiefer Neoespresionismo Alemaniarraren ordezkari nagusietako bat da. Mugimenduaren ezaugarriak dira heroismo subjektiboaren berreskurapena eta testuren

erabilera. Artista honek historia bere artelanen gai bilakatzen du, bai Alemania bere jaioterriaren historia berria, bai jada desagertuta dauden kulturen historia, *Eguzki-ontzia (Das Sonnenschiff, 1984–95)* edo *Bakarrik haizearekin, denborarekin eta soinuarekin (Nur mit Wind, mit Zeit und mit Klang, 1997)* lanetan ikus daitekeen bezala. Formatu handiak landu zituen, ia arkitekturaren gisakoak, eta bere artelanetan nagusi dira paleta ia monokromatikoa eta material ezohikoen konbinazioa, hala nola, berunezko xaflak, lastoa, igeltsua, haziak, errautsak eta lurra. Organikoak bat egiten du ez-organikoarekin, eta monumentaltasunak eta testuren aberastasunak bere lanaren handitasuna eta transzendentaltasuna areagotzen dituzte.

### **202. eta 203. aretoak**

Bi galeria hauetan Alex Katz artista estatubatuarraren hamaika mihisez osatutako sail piktoriko zabala eta Miquel Navarro valentziarraren instalazio eskultoriko-arkitektoniko handia jasotzen dira.

Katzen *Irribarreak (Smiles, 1994)* sailean, sakoneko neutraltasuna eta hoztasuna erretratueta keinuen informaltasunarekin kontrastatzen dira, emakume horietako batzuen aurpegietako espresioak nolabaiteko tentsioa adierazi arren. Argiaren gehiegizko esposizioak, argazkilaritzaren ohiko baliabidea dena, erretratuen laututasuna areagotzen du. Obra figuratiboa izan arren, Katzen asmoa ez da erretratutako modeloaren nortasuna harrapatzea, adierazpenari eta irudien pertzepzioari buruzko hausnarketa sakonagoa azaltzea baizik.

Bestetik, *Harresi hiria (2000–01)* artelanak Navarroken hirien adibide adierazgarria da, artista honek ideiak aurrez aurre jartzeko espazio sortzaile gisa ulertzen baititu hiriak. Eskulturen paisaia honetan ageri diren elementu arkitektonikoak baliatzen ditu artistak ikuslea hiriko paisaiaren esperientzian barrena eramateko. Artelan honen bidez, giza eskalaren kontzeptuaren eta arkitekturaren eta eskulturaren arteko dialektikaren inguruan hausnartzeko gonbitea luzatzen du Navarrok.

### **204. aretoa**

Christian Boltanski 1986tik aurrera eman zen ezagutzera, argazki zaharrak, arropa eta artikulua pertsonalak beste pertsona batzuen objektu eta aztarna gisa erakusten zituzten instalazioen harira. Artistak sortutako espazioek antzoki edo eliza txikiak ekartzen dituzte gogora, eta miresmen isila eta galera eta gabezia sentipen sakona eragiten dituzte. Boltanskiren lanek tragedia ondorengo memoria kolektiboaren berreskurapena arakatzeko aukera eskaintzen dute, norbanakoen bizitzen oroitzapenen bidez. *Gizakiak (Humans, 1994)* artelanean, artxiboetatik edo hedabideetatik hartutako mila pertsona anonimo baino gehiagoren argazkiak erabiltzen ditu Boltanskik. Haien heriotza eta desagerpena gogora ekartzea da artistaren asmoa argazki horiek erabiltzean, baita, aldi berean, horien identitatearen galeraztea.

### **208. aretoa**

Hirurogeiko hamarkadako zenbait artistek defendatu zuten artea ez zela derrigor emozio baten ondorio izan behar, eta posible zela ideia baten ondorio izatea; kontzeptua edo ideia gauzatzearen gainetik zegoen. Hori aintzat hartuta, idatzitako jarraibideen bidezko sistema

logiko bat sortu beharra zegoen Sol LeWitten iritziz, jarraibide horiek artelana gauzatu aurretik artelanaren emaitza molda zezaten.

*Horma-irudia 831.zk (Forma geometrikoak) [Wall Drawing #831 (Geometric Forms), 1997]* artelana LeWittek areto honetarako berariaz sortutako lana da, eta artistak pintura akrilikoaren teknikaz egindako lehen artelanetako bat izan zen. Tonu bizi eta saturatuen bidez, eta Frank Gehryk diseinatutako galeriaren arkitektura kurbatuari jarraitzen dioten forma geometriko irregularren bidez, artelan honek bete-betean bat egiten du inguru arkitektonikoarekin eta hura eraldatzen du.

## **Lehen solairua: XXI. menderantz**

Lehen solairuko ibilbideari amaiera emateko, Guggenheim Bildumetako arte garaikideari lotutako artelan berrienak daude ikusgai. Artelanen aukeraketa honek gaur egungo artearen ekoizpenaren gune geografiko berriak sendotu egin direla islatzen du, eta, era berean, arte garaikidea sistema ugartasuna balitz bezala erakusten du, norabide askotara bideratutako ikerketak bere baitan baitaramatza.

### **105. aretoa**

Areto honetan Guggenheim Bildumetako arte garaikide eta berriaren azken eskuratzeak erakusten dira. Aukeraketa honek —Kanbodia, Txina, Ghana eta Korea herrialdeetako, zein Europa eta Estatu Batuetako artelanak biltzen dira— instituzioak mundu mailako ekoizpen artistikoaren gainean duen interes handia islatzen du. Artelan horien egileek askotariko gaiak landu dituzte, besteak beste, identitateaz, erbesteaz, memoriaz, arkitekturaren poetikez, eraikitako ingurumenaren dinamikez, indarkeria fisikoaz eta errepresioaz dihardute.

Galeriaren lehen aretoan, Mona Hatoum artistaren *Gure etxea (Home, 1999)* artelana ikus daiteke. Artistaren esperientzia pertsonalari estuki lotzen zaio, artista Beiruten jaio eta Londresen erbesteratutako palestinarra baita. Bestalde, Danh Vo artistaren *Onera ala ezer ez (Das Beste oder Nichts, 2010)* artelanak erreferentzia egiten dio artistaren familiako kideek Danimarkan bizi diren etorkin vietnamdar gisa bizitza hobea izateko duten nahiari. Hurrengo aretoan, artistek elkarren artean konektatuta dauden kontzeptuei heltzeko —arkitektura irudikorra, hirigintzaren eraikuntza eta eraikitako ingurumen batek norbanakoengan eragiten dituen ondorioak— baliabide desberdinak erabiltzen dituztela erakusten dute Lee Bul artistaren eskulturek eta Julie Mehreturen margolanek. Hirugarren aretoak, berriz, Ai Weiwei, Ik-Joong Kang, Sopheap Pich eta El Anatsui artisten artelan multzoa biltzen du. Artista horiek materialen erabilera adierazkorrera jotzen dute gai biografiko, historiko eta politikoak adierazteko. Sorkuntza horiek, Cristina Iglesias artistaren artelanak bezalaxe, munduko gaur egungo gai zehatzekiko eta leku desberdinetako kultur tradizioekiko elkarrizketa emankorrari bide ematen diote.



### **103. aretoa, Film & Video aretoa**

Museoaren lehen solairuko ibilbidea jarraitzeko, bi bideoinstalazio daude ikusgai Film & Video aretoan. Ragnar Kjartansson artista islandiarraren *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) obra ikusgai egongo da azaroaren 2ra arte. Bederatzi proiektzio hartzen ditu bere baitan eta Rokeby etxaldeko ekintza musikala jasotzen du; hain zuzen, New York estatuan kokatzen den etxe historiko horri bisita egiten dio artistak 2007az geroztik. Azaroaren 14tik aurrera, berriz, Rineke Dijkstra artistaren *The Krazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*), *Liverpool, UK* (2009) lana erakutsiko da, DJek egindako musika nahasketen erritmora dantzatzen duten gazteei buruzkoa. Guggenheim Bildumek azken hamarkadetan gaur egungo artean arreta jarri dutela erakusten dute artelan horiek, bai eta bideoartean eta bideoinstalazioan arreta berezia jarri dutela ere, baliabide horiek gaur egungo artea garatu eta eratzeko duten zeregin garrantzitsua agerian ipintzeko.

### **Artelan iraunkorrak eta kokapen zehatza dutenak**

*Gure garaiko artea* erakusketa osatzeko, Guggenheim Bilbao Bildumako artelanak kokatu dira museoaren barrualdeko zein kanpoaldeko zenbait lekutan, beren kokalekuarekin elkarrizketa interesgarriei bide emanez: kokapen espezifikoak duten instalazioen artean, Jenney Holzerren *Bilborako instalazioa* (*Installation for Bilbao*, 1997) 101 aretoan eta Richard Serraren *Denboraren materia* (*The Matter of Time*, 1994–2005) 104 aretoan; Fujiko Nakayaren *Laino-eskultura 08025 (FOG)* [*Fog Sculpture # 08025 (FOG)*, 1998] eta Yves Kleinen *Su-iturria* (*Fire Fountain*, 1961; 1997an sortua) artelan hegakorrek, eta Louise Bourgeoisen *Ama* (*Maman*, 1999), Anish Kapoorren *Zuhaitz garaia eta begia* (*Tall Tree & The Eye*, 2009) eta Jeff Koonsen *Tulipanak* (*Tulips*, 1995–2004) eskulturak, urmalean edo inguruetan kokatzen dira; Jeff Koonsen *Puppy* (1992), Museoeko plazan; eta Daniel Burenen *Arcos rojos/Arku gorriak*, 2007, alboko Salbe zubian.

### **Didaktika**

Didaktika egitasmoa erakusketen edukien osagarri da, eta horretarako, gune didaktikoak, jarduera bereziak eta aretoetako orientatzaileen lana baliatzen ditu.

### **Gune didaktikoak**

Erakusketa handia dela kontuan hartuta, bi gune didaktiko finkatu dira Museoaren bigarren eta hirugarren solairuetan, Solomon R. Guggenheim Foundation eta Guggenheim Bilbao Museoaren bildumen bilakaera, horien osagarritasuna eta bien museo ereduaren giltzarriak ezagutzeko xedearekin.

Solairu horietan hainbat testu ikusiko dituzu, ausaz ordenatuak eta “Jakingarriak” izenburupean taldekatuak. Guggenheim Bildumen artelan batzuen inguruko argibideak eta alderdi interesgarriak jasotzen dituzte.

Era berean, bisitariak Solomon R. Guggenheim Foundationen historiako eta Guggenheim Bilbao Museoaren historiako une garrantzitsuenen kronologia ezagutzeko aukera izango du hirugarren solairuan; bestalde, Guggenheim Bildumei buruzko liburuak irakurtzeko eremua izango du eskuragarri.

Bigarren solairuan, ikus-entzunezko sail batek osatuko du Didaktika egitasmoa. Guggenheim Bilbao Museoaren proiektuaren hastapeneko irudiak erakutsiko dira bertan, museoa eraikitzeak hiriarri ekarritako aldaketa islatuz. Atal honetan, halaber, erakusketa prestatzeaz arduratu den arte ardurako taldearen esku-hartze laburrak izango dira. Erakusketa zergatik eta nola prestatu zen azalduko dute, eta bisitarien, kolaboratzaileen, hezitzaileen, artisten, Museoko Lagunen... lekukotzak ere ezagutzera emango dira; azken batean, proiektuaren corpus soziala osatzen duten eta ezinbestekoak diren pertsonen dagozkien lekukotzak izango dira. Horien guztien esperientziak zein ikuspuntu anitzek Guggenheim Bilbao Museoaren eta haren Bildumaren bilakaeraz interpretazio irekia eta anitza eskaintzen dute.

### **Jarduera bereziak**

#### ***Ensemble Kandinsky-Switzerland* kontzertua**

**Urriak 23, osteguna**

*Gure garaiko artea. Guggenheim Bildumen maisulanak* erakusketaren harira, Museoak Ensemble Kandinsky-Switzerlanden kontzertu bikaina eskainiko du, Basileako Paul Sacher Fundazioaren laguntzarekin.

Erakusketari zuzenean lotzen zaion egitarauak, klarinete, piano, biola, biolin eta biolontxelorako piezen errepertorioa eskainiko du, besteak beste, Wolfgang Amadeus Mozart, Igor Stravinski, Erik Satie, Arnold Schönberg edo Morton Feldman musikagileenak. Klasizismotik garaikidetasunera egindako ibilbide musikala da.

Lekua eta ordua: Museoaren Entzungela, 19:00

Sarrerak Museoaren txarteldegietan eta web orrian eskuragarri: 5 € Museoaren Lagunak eta 8 € publiko orokorra. Egitaraua webgunean begiratu.

### ***Arte jaialdia***

**Ezagutu ezazu gure garaiko artea!**

**Azaroak 8, larunbata, eta azaroak 9, igandea**

Arteari, sormenari eta diziplina anitzei buruzko jaialdia, Museoaren XVII. urteurrenaren harira eta *Gure garaiko artea* Bilduma Iraunkorra erakusketa handiari lotuta. Publiko mota guztiei zuzendutako jarduera ugari izango dira.

Informazioa eta sarrerak: asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara, 944 359 080 telefonoan edo Museoaren webgunean.

### **Aretoetako orientatzaileak**

Bisitariak aretoetako orientatzaileengana zuzendu daitezke erakusketaren eduki artistikoei buruzko informazio gehiago jasotzeko. Horrela, eduki artistikoetan eta areto bakoitzeko artelan jakin batzuetan sakontzeko aukera izango dute, bai eta Museoaren arkitektura, Guggenheim Sarea eta Guggenheim Bilbao Museoaren egitasmoari buruz gehiago jakitekoa ere. Egunero, 11:00etatik 14:00etara. Doako zerbitzua.

### **Informazio gehiago**

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketin Saila  
Tel: +34 944359008  
[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Prentsak erabiltzeko irudiak  
***Gure garaiko artea. Guggenheim Bildumen maisulanak***  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudien on line zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es](http://prensa.guggenheim-bilbao.es)) erregistratu eta erakusketaren zein eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko aukera izango duzue. Oraindik konturik ireki ez baduzue, erregistratu eta behar duzuen materiala deskargatzeko aukera duzue. Jada erabiltzaile bazarete, sartu zuen sarbide-izena eta pasahitza eta zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Guggenheim Bilbao Museoko Prentsa Sailarekin harremanetan jar zaitezke, +34 944 35 90 08 telefonoaren bidez, edo [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es) posta elektronikoaren bidez.

**1. Franz Marc**

*Zezena (Der Stier)*, 1911

Olio-pintura mihise gainean

100 x 135,2 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 51. 1312



**2. Marc Chagall**

*Paris leihotik (Paris par la fenêtre)*, 1913

Olio-pintura mihise gainean

136 x 141,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma, dohaintza 37.438

© VEGAP, Bilbo, 2014



**3. Amedeo Modigliani**

*Biluzia (Nu)*, 1917

Olio-pintura mihise gainean

73 x 116,7 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma, dohaintza 41.535



**4. Vasily Kandinski**

*8. konposaketa (Komposition 8)*, 1923ko uztaila

Olio-pintura mihise gainean

140 x 201 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Solomon R. Guggenheim Sortze Bilduma, dohaintza 37.262

© VEGAP, Bilbo, 2014



**5. Mark Rothko**

*Titulurik gabea*, 1952–53

Olio-pintura mihise gainean

300 x 442,5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



**6. Eduardo Chillida**

*Sakona airea da (Lo profundo es el aire)*, 1996

Alabastroa

94 x 122 x 124 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



**7. Jorge Oteiza**

*Bi triedroen elkarteak sortutako kutxa metafisikoa. Leonardori omenaldia (Caja metafísica por conjunción de dos triedros. Homenaje a Leonardo)*, 1958

Altzairua

28,5 x 25 x 26,5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



**8. Bruce Nauman**


*Erdialderako argizatutako lana (Lighted Center Piece)*, 1967–68

Aluminiozko xafla eta 1.000 watt-eko lau halogeno-lanpara

Xafla: 6,4 x 91,4 x 91,4 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Panza Bilduma, dohaintza 92.4161

© VEGAP, Bilbo, 2014



**9. Sol LeWitt**

*Horma-irudia 831. zk. (Forma geometrikoak) [Wall Drawing #831 (Geometric Forms)]*, 1997

Akrilikoa horma gainean

Kokapen zehatzeko neurriak

Guggenheim Bilbao Museoa



**10. Andy Warhol**

*Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretsu (One Hundred and Fifty Multicolored Marilyns)*, 1979

Akrilikoa eta serigrafia mihise gainean

201 x 1.055 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



### 11. Anselm Kiefer

*Bakarrik haizearekin, denborarekin eta soinuarekin (Nur mit Wind, mit Zeit und mit Klang)*, 1997

Akrilikoa eta emultsioa mihise gainean

470 x 940 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



### 12. Julie Mehretu

*Erdia grisa (Middle Grey)*, 2007–09

Tinta eta akrilikoa mihise gainean

304,8 x 426,7 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Deutsche Bank AG-ek aginduz eskatua, Solomon R. Guggenheim Foundation-en aholkuarekin, Deutsche Guggenheim-erako, Berlin 2012.206

© Julie Mehretu



### 13. El Anatsui

*Lurraren azala (Earth's Skin)*, 2007

Aluminioa eta kobrezko haria

449,6 x 1.000,8 cm inguru

Guggenheim Abu Dhabi

© El Anatsui

Argazkia: Andrew McAllister; honen eskaintza: Akron Art Museum



### 14. Ai Weiwei

*Txinako enborra (China Log)*, 2005

Zur gogorra

57,8 x 337,5 x 55,2cm guztira

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, hauen dohaintza:

Lybess Sweezy eta Ken Miller 2012.138

© Ai Weiwei

Lanaren ikuspegia erakusketa honetan: *Now's the Time: Recent Acquisitions*, Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2012ko azaroaren 3a–2013ko urtarrilaren 2a. Argazkia: Kris McKay



### 15. Cristina Iglesias

*Titulurik gabea (Sareta II) [Sin título (Celosía II)]*, 1997

Zura, erretxina eta brontze-hautsa

260 x 350 x 300 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

